



Arria (-a)

etxebizitza

Aldacrak: Arrijauregi / Kalbona
Ahozkoa: Arri / Kálbona

43° 11' 53"

2° 36' 28"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Sarria auzoak eta Garaik bat egiten duten eremuan, *Arrierreka* ondoan kokatuta dago jauregi izandako baserri hau. Aurkitu dugun lehen aipu dokumentala 1704. urteko Bizkaiko su-errol-dakoa da: *Arria*. Baina argi dago etxea askoz ere zaharragoa dela. Hortik aurrera, hainbat dokumentutan ageri zaigu, denetan era berdina mantenduz: *Arria* (1825), *Arria* (1866) eta XX. mendeko azken agerietan ere *Arria* (1967). Behin baino gehiagotan *Palacio de Arria* moduan agertzen bada ere, herrikoek *Arrijauregi* erabiltzen dute, izen jatorraren erdipurdiko itzulpena dena. Gaur egun, ahoz ohikoa da artikulurik gabeko *Arri* aldaera edo *Kálbona* ezizena erabiltzea.

Etxeak berriztatze-lan handiak jasan ditu, harrien tratamenduek agerian uzten duten mo-

duan, eta handitu ere egin dute, bizitza bikoa bihurtu arte. Hala ere, bista-bistan du oraindik sasoi bateko dorre edo jauregi izanaren itxura, Errenazimenduko kalitatezko landa-etxeen tankerakoa. Oso dotorea da gorde duen fatxada nagusia, harlandu bikainaz eraikia. Era berean, ederra da ere albo batean kokatuta sarrerako arkua, dobela handi batekin, eta baita haren giltzarrian nabarmentzen den armarria ere. Beheko solairuan saietarak dauzka eta gaineko solairuetan, berriz, leiho txikiak. Pisuen artean ordena handi barik kokatuta daude, XVI. mendeko etxe askotan ikus daitekeen moduan, alboko fatxadan ez bezala. Baliteke jatorrian lau isurkitako teilatua izatea, nahiz eta egun bikoa duen.

toponimia

Izenaren esanahia argia da harri hitz arrunta eta artikulua, baina zertara dator izen bitxi hau etxe bat izendatzeko. Teoria bi ditugu izenaren nondik norakoak ezagutzeko. Aukera bat da Arria izeneko leku batean etxea eraiki izatea eta bertako izena hartu. Beste aukera dateke Ormaetxea kasuan bezala harrizko etxea izateagatik horrela deitzea, antzina etxeak zurezkoak baitziren. Gaur egun ez dago jakiterik, baina gure ustez kasu honetan lehenengoa izan daiteke azalpen logikoena.